



# ERDI AROKO BI ITSASONTZIREN IRUDIAK



uskal gaietan aritzen diren zenbaitek antzinatik sigilu, armarrri eta ateburuetan zizelaturik aurkitzen diren itsasontziez bilketa zein aipamen bereziak eskaini

dizkigute. Baina gai hoietan ere, nere ustez, oraindik izan dezakegu zer bildu eta zer iker.

Erdi Aroko itsasontzien irudiak urri dira, eta hara hon konturatu naizen Hondarribiak gutienez bi badituela. Horien berri eman nezake gaurkoan.

Santa Maria eliz nagusi gotikoak apaingarriztat dituen irudiak garrantzisko iruditzen zaizkidan itsas giroko ikonografia du bere baitan. Begiramena erne jartzen badugu, hor aurki ditzakegu itsasoari hain loturik dauden gaiak. Oroi elizan sartzeaz bat, Aitaren egiteko ere, atearen bi aldeetara ur bedeinkatu ontzitzat txirla handiak dituela. Ekalde urritietatik ekarriak noski.

Ezker aldeko hegalaren elizburuan San Pedroren aldara du Arrantzale Kofradiagatik jarria, eta hegal horren lehen tartean, korura igotzeko eskailerak dauden parte hortan, sabaiaren erdiko medaila handian ikus dezakegu San Pedroren irudi eder bat. Baina bestaldean, koruaren euskarri den eskubiko lehen zutoiak hegoaldetik, koruko solairuaren alturan, harlanduan zizelatutako izurdea ageri du. Eta eskubialdeko hegalaren hirugarren tartean ordea, sabaiaren erdiko medailan, bi itsas-lamia eta aldamenetara bale arpoiz joa, karabela eta abar. Ondare berezi bezain bikaina osatzen dute.

**XIII. mendeko trainerua.**- Egia esan, historiaz zerbait arduratu garenontzat aski ezaguna genuen 1297. urteko sigilua. Ziurrenik Hondarribia hiri izendatzeaz bere ezkututzat emana. Medaila osatzen duen sigilu horrek, alde baten gaztelua du eta bestean trainerua bale arrantzan.

Traineruan lau gizon, atze-aurreko biek arraunean eta erdiko biek balea arpoitzen.



**XV. mendeko karabela.**- Oso bitxia iruditzen zait, zeren harrigarria da ertaroko itsasontzi hontaz orainarte inor ez konturatzea zer den eta noizkoa denaz.

Bere formaren arabera, uka ezinezko karabela dugu, Colón indietara abiatu zen ontzi haien antzerakoa, baina duen aparejoan konturatuko gara ontzi hau oihal bakarduna dela. Palo nagusian ordea, argi nabari zaio, garai hartan zelatariarentzako ohi zen tokia.

Juan San Martin

